

RASFF TXOSTENA

ALERTAK eta JAKINARAZPENAK


ELIKAGAIAK

2016ko URTEKO TXOSTENA

Alerta eta jakinarazpenen kopurua
Jakinarazpenen kategorizazioa
Antzemandako arriskuen jatorria
Antzemandako arriskuak
Azken urteen arteko konparazioa



ALERTA ETA JAKINARAZPENEN KOPURUA

2016an, Europako Alerta azkarra sistemaren (RASFF) bidez **2614 alerta eta jakinarazpen** jaso dira.



JAKINARAZPENEN KATEGORIZAZIOA



2016 urtean zehar, elikagaiei buruzko 2614 jakinarazpen izan dira. Horietatik, 773 **alertak** (%29,5) izan dira, 777 **informazio-jakinazpenak** (%30) eta 1064 **mugan egin diren ukapenak** (%41).



ANTZEMANDAKO ARRISKUEN JATORRIA

Kutsatutako produktuen jatorriari dagokionez, urtean zehar, aipatu behar da **Europak (%40)** eta **Asiak (%37)** eragin dituztela jakinarazpen gehienak. Asia jatorria duten jakinarazpen kopurua jeitsi egin da 2015 urtearekin konparatuz eta Europa.mantendu eginda



Urteko batezbestekoak hurrengoak izango lirateke:



ANTZEMANDAKO ARRISKUAK


Aurreko urtean bezalaxe, **kutsadura biologikoak** eragin ditu jakinarazpen gehien. **Mikotoxinak** dira jakinarazpen gehien sortu dituzten bigarren taldea, pasa den urtetik igo direlarik. Hondakinen kopurua jeitsi da eta metalena mantendu egin da.

Hauek dira antzemandako arriskuei dagozkien urteko neurriak eta lauhilekoka izan duten bilakaera:




.....ANTZEMANDAKO ARRISKUAK


KUTSADURA BIOLOGIKOaren kasuan, **Salmonella** nabarmendu behar dugu kutsadura biologikoen **%52a** eragin baitu, (urteko batez bestekoa). Honako hau izan da kutsadura biologikoen izan duten joera:



Badira Salmonella espezie batzuk giza osasunerako arriskutsuak direnak (*S.typhimurium* y *S.enteritidis*) eta bestelako Salmonellak, azken hauek, **Salmonella exotikoak**, nabarmendu behar dugularik (**%72**), eskorta hegaztiak protagonista direlarik lauhileko guztietan. *S.enteritidis*aren kasuan oilaskoa izan da gehien eduki duena (78,5%). Urteko eboluzioa izan da:




MIKOTOXINEN kasuan, kasu gehienak (**%79**) **Aflatoxinek** eragin dituzte, **kakahueteek** kutsadura kasuen **%39a** eragin dutelarik.




.... ANTZEMANDAKO ARRISKUAK

PESTIZIDA ETA BOTIKEN HONDAKINEI dagokionez, urteko batez bestekoa kontutan hartuz, **pestizidek %83,5a** suposatu dute, **barazkiak %50a** suposatuz. Asia jatorria izanez kasu gehienetan (**%64,5**). **Botiken hondakinak (%16,5)** eta ez da produkturik nabarmendu besteengan.

Urteko eboluzioa hurrengo hau izan da:



Merkurioa jarraitzen du **metal astunen** protagonista izaten (**%72,5**), kasu gehienak **ezpatarrainak** eragin dituelarik, **%76a**. **España** jatorria izan da **%77e**ko kasuetan.



AZKEN URTEEN ARTEKO KONPARAZIOA

Azken urteak alderatuz gero, jasotako alertak zein jakinarazpenak aldatutu egin dira urtetik urtera. Hainbat aldaketa izan dira azken urteotan: Iruzurrak igo dira, gehien bat etiketan aipatu beharreko alergenokoak ez aipatzeagatik. Aldiz, produktuaren egoera higieniko txarragatik jakinarazpenak jeitsi egin dira. Mikotoxinek eragindako jakinarazpenak ere igo egin dira Kutsadura fisikoa eta metal astunak mantendu egiten dira.

